



ABURRUZAGA



## XABI ABURRUZAGA

Aurrez Aurre

Xabi Aburruzaga (Portugalete, Bizkaia, 1978). Trikitilaria 2007an hasi zen diskogintzan. Umetan Rufino Arrola trikitilaria ezagutu ondoren kutsatu zitzaion tresnarekiko zaletasuna. Sormenerako erraztasuna dauka eta diskoak bikain atontzeko trebezia. Hamaika musikari laguntzailearen ekarpenekin dotoretu izan ditu lanak, eta "Aurrez Aurre" diskoan big band izugarria muntatu du alboan izan dituen bost diskoetako laguntzaile ia guztiekin.

Xabi Aburruzagaren "Aurrez Aurre" diskoa 2021eko maiatzaren 15an emandako kon-

zertuan grabatu da Bilboko Campos Antzokian. Unai Mimenza izan da soinu teknikaria eta grabaketaren arduraduna. Bere ohiko zuzeneko taldea alde batetik: Eriz Perez (gitarra akustikoa, ahotsa), Jon Cañaveras (baxua), Aitor Uribarri (perkusioak, ahotsa), Koldo Uriarte (teklatuak) eta bestetik hamaika laguntzaile propio ekarritakoak zuzenekoaren grabaketarako. Hona hemen. Lago di Como: Xabier Zeberio (biolina). Atxarre: Xabier Zeberio (biolina), Jose Urrejola (flauta, EWI, daf), Iñigo Olazabal eta Argibel Euba (txalaparta), Gorka Urmeneta (alboka). Mekoleta: Unai Iturriaga (letra), Xabier Zeberio (biolina), Jose Urrejola (whistle). Hauspoaren infernutik: Xabier Zeberio (biolina), Jose Urrejola (daf), Garikoitz Mendizabal (txistua). Maestro Zubeldia: Iñigo Olazabal eta Argibel Euba (txalaparta), Asier Ituarte (tronboia), Javier Perez (trorpeta), Abraham de Roman (saxoa). Soinu gorria: Iñaki Aurrekoetxea (hitzak), Xabier Zeberio (biolina). Dantzarinango: Xabier Zeberio (biolina), Jose Urrejola (flauta). Maltraer: Tanxugueiras -Olaia Maneiro, Sabela Maneiro eta Aida Tarrío- (musika, letra, ahotsak). Non da Palestina?: Iñaki Aurrekoetxea (hitzak), Jose Urrejola (bendir), Iñigo Olazabal eta Argibel Euba (txalaparta), Tanxugueiras (ahotsak). Meigas: Iñaki Aurrekoetxea (hitzak), Xabier Zeberio (biolina), Jose Urrejola (daf, flauta), Tanxugueiras (ahotsa). Waltz for Velilla: Gorka Hermosa (esku-soinua). Abadiño San Blasetan: Mikel Markez (hitzak), Miren de Miguel (ahotsa). Maurizia: Fredi Paia (hitzak), Xabier Zeberio (biolina), Jose Urrejola (daf), Iñigo Olazabal eta Argibel Euba (txalaparta). Erlojua ito: Unai Elorriaga (hitzak), Xabier Zeberio (biolina), Jose Urrejola (whistle), Iñigo Olazabal eta Argibel Euba (txalaparta), Asier Ituarte (tronboia), Javier Perez (trorpeta), Abraham de Roman (saxoa). Laster arte: Jose Urrejola (EWI), Xabier Zeberio (biolina). Reel québécois: Xabier Zeberio (bioli-

na), Iñigo Olazabal eta Argibel Euba (txalaparta), Asier Ituarte (tronboia), Javier Perez (trorpeta), Abraham de Roman (saxoa). Breakfast in Belfast: Xabier Zeberio (biolina), Iñigo Olazabal eta Argibel Euba (txalaparta), Asier Ituarte (tronboia), Javier Perez (trorpeta), Abraham de Roman (saxoa), Tanxugueiras (pandereta).

Xabi Aburruzaga trikitilariaren "Aurrez Aurre" diskoa seigarrena da, eta estreinakoa zuzenean. Aburruzaga "r" hizkiek markatzen badute, "Aurrez Aurre" izenburuak "r" horiek bikoiztu egingo ditu, eta modu honetan poetikotasuna erantziko dio azalaren lehen begiradari. Diskoak kontzeptu garden erakutsiko dizkigu, eta hor dago bihotza eta eta burua, teoria eta praktika, asmoa eta jarduna, ametsa eta errealitatea. Hemen kontzeptu biribilak: hogeituroko musika ibilbidearen lekukotza da, abesti zaharrei egindako moldaketa berriak dakartza, amestutako musika festa erraldoia zuzenekoan antolatzea, amestutako taldekideekin taula gainera igotzea, amestutako laguntzaile-gonbidatuekin alimaleko big-band-a sortzea. Kontzeptuaren emaitza da hamazazpi abestietan zehar entzungo dela zoriontasunaren aldarria kantu bilakatuta. Kantu bakoitzaren soinu-leherketa biribila da urteetako jardun eta jakinduriak emandakoa. Inposiboa barrurako, eta kanporako aurrez aurre lehortutako hamazazpi abestien soinu-uhinekin entzulea harrapatzeko xedea du, eta baita egilea bera ere. Sentimendu handiarekin uztartu ditu euskal folka kanpoko sen eta estimuluekin. Disko guztiakin izan du Xabi Aburruzagak bere musika mundura zabaltzeko ideia. "Aurrez Aurre" zuzeneko diskoa aurreko bost disken lagin bat denez, hemen batu ditu berriro folkaren imaginario guztiak osagai sinboliko eta kontzeptualekin trikitiaren soinuak eta erritimo desberdinak (fandangoa, arin arina, porrusalda...) unibertsalizatzeko.

## LAGO DI COMO

Italiako iparraldean dagoen leku zoragarria. Bigarren diskoan "Denboraren naufragio" diskoan grabatu genuen. Oso kantu alaia da. Kontzertu bat hasteko aproposa. "Aurrez aurre" zuzeneko disko honetan 5 diskoetatik aukeratutako kantuak sartu ditut.

## ATXARRE

Urdaibaiko bistak aurrean edukita konposatu nuen Iparraldeko soinuek melodiekin.

## MEKOLETA

Urteroko hitzordua da niretzako Mekoletan egiten den antzinako kutsua duen jai herrikoa. Testua Unai Iturriagak idatzi du.

## HAUSPOAREN INFERNUTIK

Trikiti klasikoa eta modernoa uztartzen duen pieza da, fandangoa eta arin-arina elkarri lotuta. Feat: Garikoitz Mendizabal.

## MAESTRO ZUBELDIA

Portugaleteko kalea da. Nire lehen ikastetxearen izena. Egunero hasten zen nire mundua kale horretan.

## SOINU GORRIA

Nire ilobari eskainitako kantua da.

## DANTZARINANGO

Betidanik oso erakargarria egin zaizkit dantza doinuak. Melodia hartu eta moldaketa garaikide batekin irudimenezko zubi bat sortu nahi izan dut, tradizioa eta modernitatea elkartzea du xede, hemen nire saioa.

## MALTRAER

Tanxugueirasen kantua. Galiziako neskek izugarritzko erakargarritasuna dute, ni txundituta uzten naute.

## NON DA PALESTINA?

Palestinako gatazkari buruzko porrusalda. Feat: Tanxugueiras.

## MEIGAS

2019ko emakume baten ikuspegitik, euskara eta galegoa uztartu ditu kantu honek. Feat: Tanxugueiras. Iñaki Aurrekoetxeak egin du kantu honen letra.

## WALTZ FOR VELILLA

Txikitako oroitzapenetan sortutako doinua, nire aitona eta amamaren herriari eskainia. Feat: Gorka Hermosa.

## ABADIÑO SAN BLASETAN

Trikitixa, panderoa eta ahotsa Maurizia handiaren antzera, Miren de Miguelen ahotsarekin.

## MAURIZIA

Doinu herrikoa moldaketa berriekin, eta Fredi Paia- ren letra. Mauriziaren omenez idatzitako letra da.

## ERLOJUA ITO

Unai Elorriagaren letrarekin osatutako kantua. Kantuaren bukaeran metalen presentzia nabarmena da.

## LASTER ARTE

Kantu sinplea, eta sentimentuz betea. Kanpora doan pertsonaren sentimendua ageri da. Banoa baina itzultzeko asmoarekin. Migrante baten istorioa izan daiteke. Horrela amestu nuen.

## REEL QUÉBÉCOIS

Quebeceko "reel"-a sortu nuen Quebecera egindako bidaia batean.

## BREAKFAST IN BELFAST

Kantu alaia kontzertuan izan ditudan laguntzaile guztiak oholtzan jartzeko, eta kontzertua goi-goian amaitzeko. Eztanda. Musika eztanda.

## Xabi Aburruzaga Band

Xabi Aburruzaga: trikitia, ahotsa  
Eriz Perez: gitarra akustikoa, ahotsa  
Jon Cañaveras: baxua  
Aitor Uribarri: perkusioak, ahotsa  
Koldo Uriarte: teklatuak  
Soinu teknikaria: Unai Mimenza



Tel: 659 975 820 - 618 072 026 / 221 PK, 48100 Mungia (Bizkaia)  
www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus

ritxi aizpuru + xabi aburruzaga  
(2021eko azaroaren 26a)